



0 Km IKASTOLA

TOKIKO KONTSUMOA SUSTATZEKO EKIMENA

Ikastolaren eguneroko jarduera tokiko kontsumoa eta inguru hurbileko hornitzaile eta zerbitzuekiko harremanak sustatzeko aukera bihurtu nahi dugu.

Izan ere, Ikastolaren jarduera ekonomikoari errepatatuta, gure aurrekontutik 300.000 euro inguruko gastua bideratzen dugu eskualdean bertan, 50 hornitzaile baino gehiagoko zerrenda osatuz. Gastu hau Ikastolaren aurrekontuak hornikuntza eta zerbitzuen

kontrataziorako bideratzen duen diru partidaren erdia baino gehiago da, are gehiago, jantokiaren kasuan ia %70a bideratzen dugu tokiko kontsumora.

Era berean, gertuko eta nazio ikusmirari helduz, Ikastolaren aurrekontuko beste atal batzuk Ikastola talde barruan, EHIn, bideratzen ditugu. Koooperatiba eredu hau Hezkuntza eremutik haratago garatzeko, eta kontsumo arduratsu eta iraunkorrerako ildoari ere heldu diezaiozun, Ikastola GoiEner energia berriztagarrien eta kontsumo kooperatibako bazkidea da eta Errigora bezalako azolan ekimenak ere bultzatuz.

0 Km IKASTOLA EKIMENA

0 Km Ikastola ekimenaren bidez, norabide horretan sakondu nahi dugu, gure inguru hurbilean bidera ditzakegun harreman horiek areagotuz eta aldi berean gure familia-bazkideen artean ere aukera hau zabalduz eta bultzatuz.

Horretarako, Ikastolako komunitateko parte diren tokiko ekoizle, merkatari eta zerbitzu-emaileen zerrenda osatu nahi dugu, Ikastolaren jardun-eremu ezberdinetan kontutan izan ditzagun eta baita ere gure familia-bazkideen artean tokiko sare horren berri emateko.

0 Km ekimenean izena ematera gonbidatzen ditugu beraz Ikastolako tokiko ekoizle, merkatari eta zerbitzu emaileak ondorengo formularioaren bidez:

izena eman 

Zerrenda hori behin osatuz gero, Ikastolaren hornitzaile sarean txertatzeko aukerak aztertuko ditugu eta gure familia-bazkideen artean informazio hori partekatzeko euskarriak ere landuko ditugu.

